

Morkotsez lakatz, karloz zokal

SAN AGUSTIN GAZTAINA, abuztuaren amaian, irailaren hasieran Andra Mari gaztaina, Betulaza bezala. Baita Goiz gaztaina edo Arrate gaztaina. Egosteko egokiak diren Bentogorri, Legerio eta Azkoitia gaztaina goiztiarrak. Gero, azaroa artean mordoia. Latza, edo Horitxo latxa, gure azal mehea zulatzen duen arantza motzeko morkotsa duena. Irailaren amaierako San Migel gaztaina gozoa baina jasotzeko alua. Antzeko alua garaitzuko Txerka zuria, ale handiago eta borobilxeagokoa. Ale gozoko Iñurrio handia eta Iñurrioa. Eta Iñurri zuria eta Iñurri beltza. Bizkai zuriegi, Bizkai zuriena eta Bizkaia gaztaina, ttiki gozo, egosita jatekoak. Abadiño gaztaina, ipurdi handia. Lakatz handiko Txargoia eta Txapardoa, azken hori erretzeko aproposa. Markola eta Markol zaharra. Orri-beltza eta Hosto-beltza, bera ote? Iruria edo Iduria, Iñarmentua, Aritzaua, Bettargia. Mandotsak erren arantza urriko Gaztaina betegarriak aleek mardotsean gainezka egiten baitute. Morkol arantzatsuko Ulebera, arantza luzeko Uleluzea,

eta arantza zuriko Ulezuria. Sona handiko Gaztain gozoa, ale ttiki eta azal ilunekoa, jasotzeko txarra, baina gustu ederrekoa. Morkutsak lau edo bosnaka itsatsita ematen dituen Porkaltsa, Morkolarz eta Ilaundia, elearn azala bixartsua dutena. Morkotea latza, mutxur zakarrekoa, ale gutxi eta ez oso gozoak, baina jasotzeko egokia. Mearegorria, azal gorriko ale handia, erretzeko estimatua. Otañu gaztaina, Ahuntz gaztaina, ale ederreko Argiñorda txertoa eta sona handiko Txertagorria, goizekoa, handia, gozoa, baina iraupenik gabekoa. Lesakarra, azal iluneko ale txiki fina eta estimatua. Ttikia, baita ere, Garrangira eta Naarbera ertaina. Zubiaga kirikio handia. Danbolatsa, ale ilun eta marraduna, oso berandukoa, gozoa eta irauten duena. Ataloea edo Artaloea, Metura eta Muizuar erretzeko onenetakoak. Amelatz eta Arbera finak. Ibarbaltz, emankorra, azal beltzekoa. Iguridi gozoa. Beranduko ale txiki beltzeko Lopetsa. Larramua, Azpeiti gaztaina, Eradegea, Lete gaztaina, Ederra, Herria, Marki, Frantzia gaztaina, Elorri

gaztaina, Ifarra, Kirrimahatsa, Berde gaztaina, Txakarroa, eta arbola galantetako Saboia. Sarobia, ale handi azal distiratsua eta gozoa. Jasotzeko egokienetako Gaztaina berdeak, karloaren koloreagatik, ale handikoak. San Martin, oso berandu heltzen zena eta batez ere zerri jendeari ematen zitzaiona. Zokalak itsatsiak dituen Txirikorda. Hirunakoa, sokoileko hiru alekoa eta Aita handia eta Amabirjin gaztaina ale handi bakarra dutena. Atso, Otzorpo... ezertarako balio ez duten sokorreko sei eta bederatzi ale ziztrinekoak. Arbots handiko Zugatzola, zuretarako oso ona. Azaro hasieran heltzen da Roke-tarra, handia eta itxura ederrekoa, baina makala eta iraupen eskasekoa. Beranduko Legerio beranduko, Itsu gaztaina, Berandumarkola, Beranga, Beremendu, Kirimetz, Mantulu, Lopetxa txikia, Zakarro eta Berdola eta azkenekotako Anbultsa, Ezlebera, Garrameatz, Iruerreketa eta Ibalamendu. Eta txertaka, basaka, txerri gaztaina edo edarega deitua. ■



Kontuz Bilborekin eta Bizkaiarekin

Energia kontrolatzea bezain emankorra da ura eta elikagaien kontrola. Ederki daki hori Monsanto, eta etorkizuna prantatzen ari da. Erosi berria du munduko soldadu mertzenario enpresa handiena omen dena: Academi, lehen Xe eta Blackwater zena. Bestetik, transgeniko eta ongarrri eta botika kimikoen negozioa txikitxo, nonbait, eta hazien jabegoa duten enpresak ere erosten ditu. Oraintxe eskuratua du AEBetako barazkien hazien merkatuko %40 duen Seminis. Elikadura burujabetzaren aldekoek aitaren batean ekin diote bere haziak ez erosteko kanpaina bati. Ehunka barazki aldaera artean bere jabegokoak dira orain Bilbo izeneko azenarioa eta Byscaine izeneko piperra (argazkikoa). ■